

2025EKO APIRILAREN 14KO TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita bosteko apirilaren hamalauan, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu dira 2025eko martxoaren 10ean eta martxoaren 31n egindako ohiko bilkuretako aktak, eta idatzita dauden moduan onartu dira.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2025eko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 32 zenbakidun zerrenda, EHUN ETA HIRU MILA LAUREHUN ETA BOST euro ETA BERROGEITA BAT zentimokoa (103.405,41 €), bere espedientean dagoena, onartzea erabaki da.

III.- GEZ BIDEZKO KONTRATAZIOA, ORDENAGAILU PERTSONALEN HORNIDURAREN KONTRATAZIO ESPEDIENTEARI ATXIKITZEA.-

Gipuzkoako Erosketen Foru Zentralak jakinarazi du, ordenagailu pertsonalen hornidura kontratatzeko, kontratazio espedienteari hasiera ematera doala esparru akordioaren prozedura bidez.

Kontuan izanda udal honetako Osoko Bilkurak, 2011ko martxoaren 17an egindako bilkuran, Gipuzkoako Foru kontratazioen zentralari atxikitzeko hitzarmena onartu zuela.

Kontuan izanda baita ere udal honek zerbitzu honen kontratazioa behar duela.

Gaia aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin zera erabaki du:

- 1.- Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralak ordenagailu pertsonalen hornidura kontratatzeko hasi duen esparru akordioaren kontratazio espedienteari atxikipena ematea, 2011ko martxoaren 17ko Udal Osoko Bilkurak onartuta atxikitako hitzarmenean ezarri-

tako eran eta baldintzetan, eta 2011ko otsailaren 22ko 2011/3 Foru Dekretuan ezarritako arauetan.

- 2.- Enpresa esleipendunarekin kontratu eratorria izenpetzeko konpromisoa hartzea, aldundiak esparru akordioa formalizatu ondoren eta hark adierazitako epean, betiere.

IV.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 15-11-11 zenbakidun esped.: astean 4 ordutik 6 ordura pasatzea apirilaren 1etik aurrera, erabiltzaileak laguntza handiagoa behar duelako. Onuradunen ekarpena % 35ekoa izango da.
- 21-11-05 zenbakidun esped.: astean 4 ordutik 5 ordura pasatzea apirilaren 1etik aurrera, laguntza pertsonalerako. Onuradunen ekarpena % 100ekoa izango da.
- 23-11-12 zenbakidun esped.: astean 10 ordutik 14 ordura pasatzea apirilaren 1etik aurrera, etxeko garbiketa eta laguntza pertsonalerako. Onuradunen ekarpena % 100ekoa izango da.
- 24-11-16 zenbakidun esped.: astean 13 ordutik 15 ordura pasatzea apirilaren 1etik aurrera, erabiltzaileak laguntza handiagoa behar duelako. Onuradunen ekarpena % 2koa izango da.
- 25-11-03 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan alta ematea martxoaren 24tik, astean 5 egunez eta egunean bi orduz, laguntza pertsonalerako. Onuradunen ekarpena % 74koa izango da.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 670 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 87,88 €-ko dirulaguntza ematea urtarriletik abendura. Eman daitekeenaren % 95 da.
- 18-01-004 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 147 €-ko dirulaguntza ematea urtarriletik abendura. Eman daitekeenaren % 98 da.
- 22-01-001 zenbakidun esped.: etxeko mantentze gastuetarako hilean 72 €-ko dirulaguntza ematea urtarriletik abendura. Eman daitekeenaren % 72 da.
- 22-01-015 zenbakidun esped.: etxeko mantentze gastuetarako hilean 100 €-ko dirulaguntza ematea urtarriletik abendura. Eman daitekeenaren % 100 da.
- 22-01-016 zenbakidun esped.: etxeko mantentze gastuetarako hilean 75 €-ko dirulaguntza ematea maiatzetik abendura. Eman daitekeenaren % 100 da.

- 23-01-005 zenbakidun esped.: etxeko mantentze gastuetarako hilean 85,50 €-ko dirulaguntza ematea urtarriletik abendura eta alokairu gastuetarako hilean 142,50 €-ko dirulaguntza ematea urtarriletik abendura. Eman daitekeenaren % 57 da.
- 23-01-006 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako dirulaguntzan baja ematea apiriletik.
- 23-01-007 zenbakidun esped.: alokairuko eta etxebizitzaren mantentze gastuetarako dirulaguntzan baja ematea apiriletik.
- 23-01-016 zenbakidun esped.: etxeko mantentze gastuetarako hilean 150 €-ko dirulaguntza ematea urtarriletik abendura. Eman daitekeenaren % 100 da.
- 23-01-017 zenbakidun esped.: etxeko mantentze gastuetarako hilean 120 €-ko dirulaguntza ematea urtarriletik abendura. Eman daitekeenaren % 100 da.
- 25-01-004 zenbakidun esped.: etxeko mantentze gastuetarako hilean 102 €-ko dirulaguntza ematea apiriletik abendura. Eman daitekeenaren % 68 da.
- 25-01-005 zenbakidun esped.: etxeko mantentze gastuetarako hilean 100 €-ko dirulaguntza ematea maiatzetik abendura. Eman daitekeenaren % 100 da.

Familia laguntzak. -

- 23-15-04 zenbakidun esped.: martxoan, apirilean eta maiatzean familia esku-hartzea luzatzea eta intentsitatea handitzea. Horretarako aurrekontua 1.451 €-koa da.

Gizakia Helburura joateko garraiorako dirulaguntzak. -

- 25-14-01 zenbakidun esped.: martxoan garraiorako 300 €-ko dirulaguntza ematea, Gizakia Helburura egiten dituen garraio gastuak ordaintzeko.
- 25-14-02 zenbakidun esped.: otsailean garraiorako 300 €-ko dirulaguntza ematea, Gizakia Helburura egiten dituen garraio gastuak ordaintzeko.

Orobione jubilatu eta pentsiodun elkarteari dirulaguntza. -

Orobione jubilatu eta pentsiodunen elkarteari 2025. urterako dirulaguntzaren lehen zatia, hau da, 5.244,92 €-ko dirulaguntza ematea, urteko ekintzen garapenerako eta oinarritzko egituraren funtzionamendurako.

Gazte laguntzaileentzat bekak. -

Helene Zeberio Agirreri 2025eko uztailaren 14an hasi eta hiru astez, Arushako (Tanzania) haurtzaindegietan, haur eta alargun etxeetan dauden haurrei garapen eta ongizatearen arloan laguntzeko, oinarritzko hezkuntza eta aisialdirako jarduerak eskainiz, 2.000 € dirulaguntza ematea. Zenbateko honen % 50 bidaia egin aurretik ordainduko zaio eta beste % 50 bidaia egin ondoren gastuen faktura edo agiri originalak aurkeztutakoan.

Ifarra Hegoa lankidetza programa.-

2025. urteko Ifarra-Hegoa laguntzaren deialdia egitea.

Ifarra-Hegoako lankidetza arautegia 2024ko martxoaren 26an publikatu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

- Eskaerak aurkezteko epea deialdia GAO n argitaratzen denetik 30 egun.
- Aurrekontua: 20.000,00 €
- Euskal Elizbarrutiko Misio Ordezkaritza: 16.000€

V.- EUSKARA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Euskara batzordeak egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako erabaki hauek hartu ditu:

Gerriko kultur elkarteari.-

2025eko euskarazko film laburren XXII. Laburbira antolatzeagatik, 496,10 €-ko dirulaguntza ematea.

Ordainketa partida honetatik egingo da: 2025eko aurrekontuaren 1 481.01.335. 00 partidatik.

VI.- KIROL ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Kirol eta gazteriako zinegotziak egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honakoa erabaki du: aurrekontuetan kirol talde desberdinek urteko ohiko funtzionamendu eta egitasmoak diruz laguntzeko ondorengo dirulaguntzak onartzea, eta hauen lehen zatia, hau da, %60, momentu honetan ematea.

Ondorengoa da onartu diren dirulaguntzen zerrenda:

Kirol elkarteak	Laguntza osoa	Lehen ordainketa (% 60)
Lazkao Kirol Elkarteak	16.000 €	9.600 €
Goierri Gorri Kirol Kluba	5.300 €	3.180 €
Lazkao Antzar Pilota Kirol Elkarteak	2.500 €	1.500 €
Antzar Korrikalariak Kirol Kluba	12.000 €	7.200 €
Amalur Mendi Elkarteak	2.500 €	1.500 €
Txindoki Atletismo Taldea	2.200 €	1.320 €
Ordizia Igeriketa Taldea	2.000 €	1.200 €
ORLOIJ Txirrindularitza Bultzatuz Elkarteak	1.000 €	600 €
Ikullu Razing	5.000 €	3.000 €

VII.- EKONOMIA SUSTAPEN ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Ekonomia Sustapeneko Batzordetik, merkataritza, zerbitzu eta ostalaritza jardueri dirulaguntzak emateko egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako erabaki hauek hartu ditu:

Merkatariei 2025eko irekiera eta obregatik.-

Lazkaoko merkataritza eta ostalaritza jardueraren sustapenerako Lazkaoko Udalak 2025erako onartutako dirulaguntzak direla eta (jardueren irekiera eta modernizazioa) jasotako honako eskaeraren ondorengo dirulaguntzaren ordainketa egitea:

MERKATARIA	GUZTIRA
Ainhoa Santos Telleria y Otra CB (Maya ileapaindegia) (Obra 1.426,97 €, irekiera 1.500 €, errotulua euskaraz 500,00 €)	3.426,97 €
GUZTIRA	3.426,97 €

Ordainketa 2025eko udal aurrekontuaren 1 471.03.433.01 partidatik egingo da.

VIII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ez da galderarik egon.

IX.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bostak eta hogeita bost direnean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.